Testu hauek Bermeoko zenbait tokiri egiten diete erreferentzia, baina ikusten denez, osatu gabe daude. Zuen lana azpian agertzen diren hitzekin hutsuneak betetzea da eta baita zein tokiz ari garen asmatzea ere.

Torronteron kokaturiko eraikina da. Bermeoko ___________ zutik geratzen den dorretxe bakarra da. XIV.mendean eraikia eta 1943an ___________ historiko izendatua. Hantxe jaio ziren Martin Ruiz Ertzillakoa eta bere seme zen Fortun Gartzia Ertzillakoa.

Hainbat jabetza desberdin izan ostean, gaur egun __________ museoa da dorre hau.

Etxe hau __________ Andra Maria elizaren jabetzakoa izan zen; hain zuzen, elizek eta ermitek izan ohi duten etxeetarikoa. 1828an _______ egin zen, Goiko plazako Santa Maria eliza eraikitzeko dirua behar zela eta.

Gaur egun bada inguruan, hiribilduko etxe _____________________ hartzen den bat, hain zuzen Andra Mari kaleko 22. zenbakia duena. Baliteke berau izatea ______________________.

_______.mendean Severino Atxukarrok eraikia, 1893an. XX.mende hasierako arkitektura ________ joerak islatzen ditu. Oina, laukizuzenean sartutako _________ formakoa da, estaldura konplexu batekin. _________ iparraldeko ereduak gogorarazten dizkiguten arbelezko bi pinakuluak nabarmentzen dira.

__________, San Frantzisko komentuaren aurrealdean kokaturik dago. Lehenago iturri hau errepidearen beste aldean egon zen, San Frantzisko kalearen ondoan dagoen zabalgunean.

_______an eginiko _________ honen harraska Ereñoko marmol gorriz egina da eta gaineko marmol zurizko pilarea, Markos Ortoizgoiti eskultore gasteiztarraren lana da. _________, landare irudiz, girlandez eta lazoz apaindua dago. Eta garaipena irudikatzen duen _________ eginiko andrazko baten estatua dauka gainean, herriak _________ esaten diona.

1919an proiektu bat izan zen irudia Lamerara eramateko.

HUTSUNEAK BETETZEKO HITZAK: Taraska, Talako, Europako, burdinaz, garaikideko, hirugunean, pilarea monumento, saldu, 1967, arrantzaleen, iturri, Landatxuko etxea, zaharrenetarikotzat, gurutze, XIX, Portalen,

Testuak osatu ostean, aukeratu bat eta egin ezazu toki horren irudia.